

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OIONGO UDALA

#### **Behin betiko onestea Liburutegiko arduradun (LB/BIBL/TE/C1/22/202/1) lanpostuari dagokion lanpostu-zerrenda aldatzea**

Bo200706. 2020ko lanpostu zerrendaren aldaketaren espedientea jendaurrean jarrita egon da 15 egun baliodunez, 1330 zenbakiko iragarkia 2020ko ekainaren 12ko ALHAOn argitaratu zenetik (66. zk) kontatzen hasita.

Jendaurrean jarrita egon den aldi horretan interesdunek ez dute egin ez erreklamaziorik ez iradokizunik hasierako onespeneraren erabakiaren kontra, eta, beraz, behin betiko onesten da aldaketa.

Toki araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen Testu Bateratuak 127. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, argitaratu egiten da lanpostu zerrenda aldatua, eta hona hemen haren edukia:

Honako lanpostu honi buruzko LPZ aldatzeko proposamena: liburutegiko arduraduna; taldea: C; azpitaldea: C1; maila: 22; titulazioa: EPOEren 76. artikulua; betetzeko era: EPOEren 78. artikulua; hizkuntza eskakizuna: 3 (2002.12.31); lanpostuaren kodea: LB/BIBL/TE/C1/22/202/1. Berariazko osagarriaren gehieneko zenbatekoa: 628,90 euro.

Erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako dagokion epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea egongo da, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Dena den, aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik, erabaki honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio udalari, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Oion, 2020ko uztailaren 6a

*Alkatea*

**EDUARDO TERROBA CABEZÓN**